

## HEMEROTEKA

Balitzko Katalunia independentea Europar Batasunean sartu ote litekeen orain eztabaidatzea, tranpan erortzea da Vicent Partalen ustez. Espainiak jarritako amua dela uste du, haiek jarrera komuna dutelako eta independentistek ez.

# Europar Batasunari buruzko eztabaida tranpa da

**Vicent Partal**

◆ VILAWEBEKO AGERKARIKO ZUZENDARIA

KONPONTZEKO garaiz gaude, baina dagoeneko erori gara saguzuloan. Jada ez dugu hitz egiten ea independente izan nahi dugun. Aldiz, Europar Batasuneko kide izan nahi dugun ala ez eztabaidatzeraz eraman gaituzte. Begien bistan dago, ez dago eztabaidarik. Batasunak onartuko gaitu behin independente garenean edota beste erremediorik ez duenean, minutu bat lehenago ez. Bien bitartean, Espainia beldurra sartu eta sartu ari zaigu, gure indarrak zatitzen ari da, beraiek posizio bakarra duten eztabaida honetan. Nire proposamena? Utz dezagun Europaz hitz egiteari eta geuri buruz hitz egin dezagun, garrantzitsua hori baita.

Pentsa dezagun independentzian beraz, eta independentzia lortzeko prozesuan, kanpoko baldintza eta xantaiarik onartu gabe. Guk independente izan nahi dugu, eta izango garenean, orduan eskatuko diogu Batasunari sarrera, hori interesatzen bazaigu. Eta bai, nire ustez, sarrera interesatzen zaigu.

Batzuek diote independentisten alde batek ez duela independentzia nahi, segurua ez bada Batasunaren parte izango garelako. Eta hor dago tranpa. Izan ere, "Oi! Nik independentzia nahi nuke, baina aizu, seguru jakin behar dut ea Europar Batasunaren parte izango garen", etengabe dioten otsoak laster ikusiko

ditugu arkumez mozorrotuta. Independentziari aurre egiteko argumentu itxurazko bat aurkitu dutenen kantu faltsua errepikatzen ari dira otso hauek.

Bada ez. Galdera gakoa ez da Europar Batasuneko kide izango garen. Galdera horren erantzuna uneon ez da garrantzitsua, ezta erabakigarria ere. Jakin behar dugun gauza bakarra da ea erabakitzeko eskubiderik daukagun. Indar nahikorik izango ote dugun ziurtatzeko erabakitzen duguna beteko dela, eskuak libre eta hipotekarik gabe, gure etorkizuna geuk erabakiko dugula.

Eta otso arimarik ez duen norbaitek uste badu arriskutsua dela alde aurretik ez jakitea Europar Batasunean sartuko garen independente bihurtzen garenean, froga diezadala arrisku hau larriagoa dela Kataluniarentzat egungo egoeran mantentzea baino.

Azkenik, eta bide batez, independentziaren biharamunaz ari garenez, agian, zuzena litzateke herritarrok iritzi kontrajarriak dauzkagun hamar edo hamabi gai nagusiei buruz ere bozkatea. Adibidez, zein litzateke arazoa galdetzeko Europar Batasunean sartu nahi ote dugun? Gaztelaniak ofiziala izan behar ote duen edo hauteskunde sistematik zerrenda irekiak behar ote dituen? ■



## BERTSO BERRIAK

# Hipoteka legeari jarriak



DANI BLANCO

**Jexux Mari Irazu Muñoa**

◆

**Doinua:** Esplikatzera noa kontuak.

Eskubidea omen bizitza, zabalduzako idea ta aterpea berriz lujoa, hala da adixkidea. Bien arteko zehar lerroa amildegira bidea, non da lujoerik ez lezakenan bizitza eskubidea?

Ehun urte eta gehiagokoa Hipotekaren legea bazenik ere ez genekien, maiz hori da boterea. Ez Republicak eta ez Francok asko ukitu gabea ta salduzako demokraziak erakutsi du berea.

Suizidioen alarmarekin hipotekak negoziagai. Nonbait pastelik ez zen egongo eta adostasunak, jai! Negoziketara Gipuzkoan balitz ta adibidez, Kutxan, ai denak konforme jarriko ziren ta Comisiones ere bai. ■

